

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Paz Fernandez zuzendari kudeatzaile berriaren izendapena eramango du ostegun honetan Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Gobernu Batzordera

NEZko Zentro Propioen Atalburua 2007. urtetik, prestakuntza eta enpleguko politika publikoei lotuta osatu du bere lanbide-karrera guztia

Martes, 25 de agosto de 2015

Nafarroako Gobernuak Paz Fernandez zuzendari kudeatzaile berriaren izena eramango du ostegun honetan Nafarroako Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Gobernu Batzordera. Gizarte Eskubideen Lehendakariordetzari atxikitako erakunde autonomo horren estatutuek adierazitako aurretiazko urrats bat da hori eta, ziur asko, Foru Gobernuak ostiral honetarako, hilak 28, programatutako bilkuran babestuko da formalki izendatuz.

Paz Fernández (Iruña, 1960) Psikologian lizentziaduna da Valentiako Unibertsitatean, Prestakuntza Zentroen Zuzendaritzan masterra egin zuen Madrilgo ESADEMen eta Enpresak Kudeatzeko Aditua da, lehenengo EINek emandako titulazioa. Kudeaketa Publikoko Aditu izateko ikasketak egiten ari da NUPen.

Haren lan-bizitza prestakuntzari lotuta egon da beti.

Enpleguko Institutu Nazionalean hasi zen lanean, eta hango Iruñeko bulegoetan aritu zen 1986 eta 1999 artean. Harrezkero, A mailako goimailako teknikari modura lanean aritu da Nafarroako Enplegu Zerbitzuan, eta haren barnean hainbat kargu bete ditu: Iturrondo Prestakuntza Zentroko eta Cenifer-ko (Espainiako Erreferentziako Zentroa Energia Berriztagarrietan eta Eraginkortasun Energetikoan) zuzendaritzak azpimarratu behar dira. 2007. urtetik, NEZko Esperientzia Bidezko Zentro Propio eta Gaitasunen



Paz Fernández NEZko zuzendari kudeatzaile izendatuko dute ostiralean.